



Asteburu osoko ospakizunak Kaletxikin

Gizarte eta kultur izaerako egitaraua osatzea lortu dute hainbat auzotarrek, Andoaingo Kaletxiki auzoan. / 7-9

Ana Jesus Altuna irakasle ohia gogoan

2009tik erretiroa hartuta bazegoen ere, Andoaingo Aita Larramendi ikastolako irakasle ohiaren heriotzak arrasto sakona utzi du ikasle askorengan / 5



**Eugenio Urruzola
Urnietako Setien
sagardotegiko
arduradunari
elkarriketa** / 10



**Kaletxikin auzotar
ugari murgildu
zen ospakizunetan,
joan zen asteburu
osoan zehar** / 7-9




**Merkatu plazan
saltzaile lanetan
aritzen den
Javier Oiartzabali
elkarriketa** / 16



UDAKO ESKOLAK

Aurrez aurrekoak
Online
Intentsiboak



ACADEMIA GF ANDOAIN

688 612 020
@ACADEMIAGFANDOAIN





Uztailaren 12an, iluntzeko 20:00tan hasita, botoen zenbaketari ekingo diote. Bien bitartean, kanpainari helduko diete hautagai nagusiek. **AIURRI**

Lehendakaritzarako botoen bila

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK | UZTAILAK 12 Gasteizko Legebiltzarra berritzeko garaia iritsi da, Koronabirusaren eraginpean eta uda betean. 75 hautagai aukeratu behar dira, horietatik 25 Gipuzkoako hautes-zerrendetatik hautatuko direnak

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Tourrarekin lotura egitea kazetari askoren tentazioa izango da. Hauteskunde kanpainaren hasiera etapa luze eta lau horien parekoa izaten ari baita. Eki-mena EAJ-PNVk erakutsi du,

hasieratik. Kartelak ipintzen lehenak izan ziren, baita inguruotan ekitaldia antolatzen lehenak ere. EH Bilduk ekitaldi bana egingo du Andoainen eta Urnietan, eta PSE-EEk datorren astean ekitaldia antolatuko du Goiko-

plazan. Elkarrekin Podemos alderdiak eraginkor jokatu nahiko du, %15eko boto portzentaiari eutsi nahian. Gipuzkoan lehia lau alderdi horien artean izango da, bereziki alderdi aberztzaileen artean.

2016ko emaitzak

ANDOAIN		
Alderdia	Botoak	%
EH Bildu	1.880	27,90
EAJ-PNV	1.858	27,57
Podemos	1.203	17,85
PSE-EE	1.077	15,98
PP	406	6,02
C'S	136	2,02
Abstentzioa		40,90
URNIETA		
Alderdia	Botoak	%
EAJ-PNV	1.031	37,63
EH Bildu	704	25,69
Podemos	408	14,89
PSE-EE	335	12,23
PP	149	5,44
C'S	45	1,64
Abstentzioa		42,08



Chema Herzog. **LXE**

Hamalau zerrenda Gipuzkoan

Hauteskundeak atzeratu eta deialdia bigarrenegiz egitean, Gipuzkoako hautes-zerrenda handitu egin zen. 14 aukera ezberdin topatuko ditu botu-emaileak aukeran, Lehendakaritzarako bozetan. Parte hartzen azkena Alderdi Libertarioa izan da, liberalismoa muturrera eraman nahi duen alderdia. Alderdi berrien artean VOX edota Libres Por Euskadi aurki daitezke. Azken horretan Gipuzkoako hautagaia Chema Herzog Errenteriako PPko zinegotzi ohia da. Albaitari lanetan ibili zen iraganean, Aiztondo aldean eta baita Andoainen ere. Harreman pertsonal ona dauka Estanis Amutxastegirekin. Berriki, "Memoria partekatu baterantz" ekitaldian parte hartu zuen.

GOBERNATZEKO PREST

MIREN GORROTXATEGI
Lehendakari hautagaia
<http://mirengorrotxategi.eus>



EAJ

EAJ-PNVren ekitaldia Andoaingen

Jeltzaleen karabanak Andoaingen geldialdia egin zuen, joan zen ekainaren 27an. Bakartxo Tejeria zerrendaburua Bastero plazako ekitaldian izan zen, alderdiko hainbat kiderekin batera. Euskararen aldeko mezua zabaldu zuen: "Orain, euskararen erabileran jarri behar dugu erronka. Euskaldun guztiek erabilerara jauzi egitea behar du izan helburu estrategikoa".



EHBILDU

EH Bilduren ekitaldia Urnietan

Rebeka Ubera eta Ibai Iriarte Gipuzkoako EH Bilduko hautagaiak Zubitxo plazan ziren, joan zen ekainaren 29an. "Duela urte batzuk imaginatuko al genuke Ziburun ezkerreko alkate abertzale bat izango genuela? Sinestezina zirudiena posible egiteko gaude gu hemen", adierazi zuen Ibai Iriarte hautagaiak. Ekitaldia Txoria txori abestuz amaitu zen.

EH Bildu Andoaingen

Arkaitz Rodriguez eta Oihana Etxebarrieta Gipuzkoako hautagaiak parte hartuko dute ekitaldian.
Uztailak 4, larunbata.
12:30 Juanita Alkain plaza.

PSE-EE Andoaingen

Maider Lainez Andoaingo alkateak eta Eneko Andueza Gipuzkoako zerrendaburuak parte hartuko dute kanpainako ekitaldian.
Uztailak 7, asteartea.
18:30 Goikoplaza.

Uztailaren 12a webgunean

Igande iluntzean hauteskondeen tokiko emaitzak zabalduko dira, emaitzak argitara eman eta berehala.
Uztailak 12, igandea.

merezi
duzun
herria



ehbildu

egiteko
prest.

maddalen
ZURE LEHENDAKARIA

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



KOMUNITATEA

EGUZKI TALDE EKOLOGISTA ANDOAIN

Abiadura Handiko Trena gelditu! AHT-aren dirua behar sozialetarako

Hilabete honetan Europar Batasuneko Garraio Azpiegituren Txosten Berezia ezagutu da, non esaten den *Euskal* Y-ak gainkostu handiak dituela, 30 urteko atzerapena eta akademikoei entzungor egiten zaiela.

Eguzki talde ekologista eta antinuklearretik txosten honek iritzi publikoarekin partekatu beharreko gogoeta batzuk sortzen dizkigu (...).

Txostenak berak onartzen du atzerapenak eta gainkostuak daudela, ondorioz, diru publikoa xahutzen dela, ingurumenari eraso egiten zaiola eta, deigarria egin zaiguna, EBk parte hartzeko eta ekarpenak eta erkaketa egiteko eskubiderik ez dela egon aitortzen du, eta horrek mespretxua eragiten die

herritarrei eta informaziorako eta parte hartzeko eskubide demokratikoari.

Abiadura Handiko Trenaren faktura negatiboa ez da soilik arlo ekonomikoan. Ekologian eta gizarte mailan ere hala da. Egindako lanak, obrak uzten ari diren aztarna ekologikoa ez litzateke berreskuraturako erabilerarekin, eta horri gehitu behar diogu lursailaren okupazio oso handia, zeinak harresi lineal bat sortzen duen lurraldeko hainbat udalerrri zatituz.

Abiadura Handiko Trena garraio elitista da, ez dago diseinatuta eta ezin da egokitu gizarte-ondasun gisa aprobetxatzeko. Hori dela eta, ezin da onartu lurraldea desitxuratzen duen, milioi askoko kostua duen eta

aberratsei bidaia finantzatzeko egiten den garraio bide bat gaitz onargarritzat; aitzitik, trenbide-garraio publikoa sustatu behar da, herritarrei zerbitzua emateko, haranak eta pertsonen eta merkantzien desplazamendu-guneak lotzeko.

Lehenik eta behin, pertsonak badira, garraio publikoak lurraldea egituratzea ekarri behar du berekin, bai eta garraio-eredu kohesionatu bat ere, haren garraio-guneak eta ibarrak naiz eskualdeak indartuko dituen.

Europar Batasunak ohartarazi duenez, Ipar Euskal Herrira Euskal Y-arekin konektatzeko iritsiko den Frantziako trenbidea ez da 2037 baino lehen eraikitzen hasiko, eta ohartarazi du, egungo trenbide sarearen azpiegiturak

"gaitasun txikiegia" duela salgaien trafikorako. Honekin, Tapia andrearen mito bat erori da baita Eusko Jaurlaritzaren diskurtso hutsa ere, eztabaidarik eta iritzi kontrajartzerik gabe obrei presa sartzeko.

Salgaiei dagokionez, ezin da onartu abiadura handiko bide hori kamioiak ordeztzeko ez erabiltzearen aukeraz damutzea, ez baita existitzen ordeztzeko planik. Plan bideragarri bakarria eredu ekonomikoaren aldaketa izango litzateke, eredu espekulatiboa alde batera utzi eta kontsumorako aldaketaren, ingurumen-krisi globalaren kontzientziaren, planetarekiko menpekotasunaren, interbentzionismoaren aldeko apustua eginez, eredu bidezkoagoa eta beherezkoagoa bermatzeko, mundu mugatu batean garapen edo hazkunde mugagabeen orde. Garraioari

dagokionez, gasolioak eta joan-etorrietan distantzia luzea izateak finantzatzeko duen nazioarteko logistika murriztearen aldeko apustua egin behar da, hala tokikoaren alde nola ekoizpenaren eta bitartekari naiz espekulatuzaileen katea murriztearen alde egiteko.

Diseinatuta ez dagoen garraio elitista da, eta ezin da egokitu gizarte-ondasun gisa aprobetxatzeko. Hori dela eta, Eguzkik uste du AHTa gelditu behar dela, ekarpen eta informazioa kontrastatzeko prozesu bati ekiteko, era horretan, egungo egoeran hobeto baloratzeko eragin, gainkostu eta alternatibak. Era berean, garraioak, publikoa eta herritarrentzako zerbitzua emango duena, lurraldearen egituraketa naiz garraioaren bilguneak kohesionaturako dituen eredu bat sustatzeko, haran eta eskualdeak indartuko dituen.



andoaINDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da.
Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugarteandia.
idezkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



ZIURTAGIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



AITA LARRAMENDI IKASTOLA

1974-1975. Ikasturtea

Ana Jesus Altuna, 1974-1975 ikasturtean, Aita Larramendi Ikastolako 2. eta 3. mailetako ikasleekin. Gelak falta zirela eta, 70eko hamarkadan, bolada batean, Ikastolako zenbait ikas-taldeek La Salle ikastetxeko geletan ikasi zuten. Atzean, Angel Alkain, Imanol Huizi, Jon Etxeberria, Inaxio Etxezortu, Patxi Kastro, Rikardo Arrieta, Ander Garmendia eta Gema

Arratibel. Erdiko lerroan: Xabier Lasa, Aitor Alkain, Dani Arizala, Juan Joxe Elizondo, Pedro Artola, Arantxa Urtasun, Juantxo Omeñaka, Ane Usarralde eta Celso Capdequi. Lehen lerroan: Arantxa Zabala, Patxi Irulegi, Lurdes Rodrigex, Amaia Areso, Garbiñe Usarralde, Xebas Goia, Juankar Erasun, Xabier Garaikoetxea, Joxean Letamendi eta Ixiar Audikana.

Ana Jesus Altuna gogoan

Aita Larramendi ikastolako irakasle lau hamarkadatik gora izandakoa, Ana Jesus Altuna Gorrotxategi ekainaren 23an hil zen, 71 urte zituela. Irakasle eta pertsona gisa erakutsi zituen aparteko ezaugarriengatik hartu dute gogoan lankide ohi, ikasle ohi eta gurasoek



Ana Jesus Altuna Gorrotxategi. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Valentin Diez zen bere senarra, eta Eneko eta Izaskun bere seme alabak. Ekainaren 25ean, bere senide eta gertukoek azken agurra eskaini zioten San Martin parrokian.

Ana Jesus Altunak 1968an ekin zion irakaskuntzari irakasle gisa, 19 urte zituela. Aita Larramendi ikastola legeaz onartu gabeko ikastetxea zen diktaduraren sasoi hartan, eta auzoz auzo eta egoitzaz egoitza ibili beharreko eskasiak ezagutuz joan zen zailtzen irakasle gisa.

2009an, berriz, erretiroa hartu zuen, Alfredo Kamio eta Gurutz Ikutza beste bi irakasle betaranoekin batera. Guztira, 40 urte-tik gora euskarazko irakaskuntzari eskainitakoak.

Ana Jesus Altuna definitzeko eskatuz gero, bokazioa, goxotasuna, errespetua, umiltasuna, pazientzia, gertutasuna..., ezaugarri horiek eta antzekoak aipatzen dituzte bere lankide izatea urtetan egokitu zaien irakasleek. Bere ikasle izan ziren makina bat belaunaldiak ere antzera mintzatuko dira ziurrenik.

Bertute horiek eguneroko irakaskuntzan txertatzen jakin zuela adierazi du Josune Orbegozo, bere lankide ohietako batek. “Irakasle gisa, guztiok izaten ditugu egun txarrak; lehertzeko zorian jartzen zara eta ikas-gelatik irtetea saiatzen zara barruak husten. Jolas orduak, adibidez, ondo etortzen zaizkigu arnas hartzeko. Bada, Ana Jesusen denbora libre hori erabiltzen zuen arazo edo zailtzairekin bat zeukaten ikasleekin egoteko, edo besterik gabe, kontu-kontari aritzeko. Goxogoxoa zen tratuan, bazekien

gertutasuna transmititzen, eta ikasleak amatxo baten antzera hartzen zituen; bere ahotik nekez irtengo zen errietarik edo purrustadarik. Izaera baikorra berarekin eduki zuen beti emakumeak”.

Errespetuaren eta pazientziaren ezaugarriak erantsi ditu Arantxa Iartzak, Ana Jesusen beste lankide ohietako batek. “Azken aldian hezkuntzan hainbeste zabaltzen ari den aniztasunaren trataeraren kontzeptua Ana Jesusen betidanik garatu zuen, modu naturalean garatu ere. Ikasleek dituzten ezaugarriak onartzea eta errespetatzea, alegia, egokitzea ikasle bakoitzaren egoerara, gaitasun eta zailtasunetara... Eta horretarako, primeran dator berak zeukan pazientzia”.

Ikasgaiekiko praktikotasuna maitasun handiz lantzen zuela adierazi du Arantxa Iartzak. “Egunerokotasunean eta herri-tartasunean zeukaten gauzekin mimo berezi edukitzen zuen. Esate batera, Pello Esnal idazle andoaindarraren *Malkos* ipuin liburua asko erabiltzen zuen klaseetan; bertan, Andoingo pertsonaje eta leku ugari ageri baitira mozturrotuta, eta berak identifikatu egiten zizkien; era horretan, irakurketa ez ezik, geure inguruarekiko interesa piztea ere lortzen zuen”.

Ana Jesus Altunak Txistokiko pasealekuko ikastolaren egoitzan egin zituen azken urteak, euskarra eta gaztelarako ikasgaiak, eta batik bat plastika, jorratuz. Oso iaioa zen esku lanetan, Iartzak ziurtatu duenez. “Gabonetan antzerkia antolatzen zuen ikasleekin, eta ikusgarriak izaten ziren presatzen zituen dekoratuak, paperekin eta marrazkiekin”. Ikasgai horretan landu zuen, modu berezian, gaiekiko interesa ikasleengan pizteko zeukan trebezia. Horrela, ikastolatik igaro diren belaunaldi askok, mutilek batik bat, ikastolako bizialdia Ana Jesusen eskaintzen zieten plastikazko orduarekin identifikatzen dute, berarekin ikasi baitzuten botoiak eta kre-mailerak josten, puntua egiten...

**ANA JESUS ALTUNAK
1968AN EGIN ZION
IRAKASKUNTZARI
IRAKASLE GISA,
19 URTE ZITUELA**



Bideo eta argazki-bilduma zabala



Bideoa: San Pedro eguneko bertso-saioa



Bideoa: Kaletxikiko bertso saioa



Bideoa: Kontzertua Kaletxikin



Argazki-bilduma: Kaletxikiko danborrada




Argazki-bilduma: Axeri-dantza



Argazki-bilduma: San Juan bezpera



Bideoa: IXA websaila



Bideoa: Aitor Arrutiren bideo-sorkuntza



Bideoa: LGTB+ adierazpena



Jaietan balira bezala, Kaletxikiko danborrada jendetsua izan zen. Saio bikaina eskaini zuten, egoera berezia bizi arren. AIURRI

Gizarte bizitzari eusteko gogoa

Konfinamenduaren aste gogorrenetan bizipozaren eredu bilakatu ziren kaletxikitarak. Txarrenari onena atera nahian, kultur eta gizarte mailako jarduera ugari antolatu zituzten. Ez zituzten bazterrean utzi, gainera, sufritzen ari ziren auzotarrak

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Fase ezberdinak igarota, normaltasun berrian, "Kaletxikiko jaietan elkar ikusiko dugu" adieraziz gero arte esan zuten auzoko animatzaileek. Baina ezin geldirik egon, eta tartean ekitaldi dotorea antolatu zuten Berrozpeko elizatzxoan. Maiatzaren 31n auzoko zaindari Ama Kandida jaio zela 175 urte betetzen ziren, eta efemerideari lotuta ospakizun berezia antolatu zuten. Bertsoak, musika, dantza... auzoan bertan topatu zuten ospakizuna egiteko beharrezkoa

zen guztia. Jesusen Alabaren kongregazioko kideak pozarren zeuden. Koro, Lourdes, Maria Dolores... bertako kideek parte hartze aktiboa izan dute joan zen asteburuko ospakizunetan. Jaien antolatzaileek denbora honetan guztian helburu garbia izan dute: Kulturaren bitartez gizarte bizitzari eustea. Eta bete-betean asmatu dute.

Auzotar ugari batu da ospakizunetara. Segurtasun neurriak betez, ospakizunak egin daitezkeela frogatu dute kaletxikitarrek.

San Juan bataiatzaileko egoiliarrei eta lantaldeari omenaldia



San Juan Bataiatzaileko langileek eman zieten hasiera ospakizunei. URDANGARIN



Igande goizean Olagain taldekoen diana adinekoen egoitzaraino iritsi zen. URDANGARIN



Larunbat eguerdian auzotarren omenaldia jaso zuten adinekoen egoitzako kideek. AIURRI



Izaskun Aizpurua dantzariak lore sorta eman zion langile bati, agurra dantzatu ostean. AIURRI



Auzotar ugari bertaratu zen larunbat eguerdiko omenaldi ekitaldira. AIURRI



Langileak eta bertako egoiliarrak eraikinaren kanpoaldera irten ziren, omenaldia jarraituz. AIURRI

Adinekoen egoitzak guztion ahotan izan diren aro zaila igarotzen ari gara. Koronabirusak, bereziki, sektore hori eta egoiliarren adin tarte hori kolpatu du. Hilabete hauetan guztietan, auzotar eta herritar asko Ama Kandida etorbideko adinekoen egoitzara hurbildu da bertako

lantaldeari aitortza adieraztera. Larunbat eguerdian, lore sorta eskuan, kaletxikitar ugari hurbildu zen San Juan Bataiatzailea adinekoen egoitzaren kanpoaldera. Mikel Urdangarin musikariak eta Izaskun Aizpurua dantzariak agurra eskaini zieten, txalo artean amaitu zena. Pozarren eta

eskertuta zeuden bertako langileak eta egoiliarrak. Biharamunean bigarren bisitaldia jaso zuten, kasu horretan Olagain Txistulari taldearen eskutik.

Aitortza ekitaldi ezberdinak jaso dituzte, esan bezala, azken hilabeteotan. Jaien aurretik, maiatzaren 17an, herritar talde

handi samarra hurbildu zen egoitzaren kanpoaldera. 65 egunez jarraian herritar asko osasun arloko langileei txalo egitera irten zen leiho eta balkoietara. Maiatzeko igande hartan, herritarrekin batera, laneko txanda amaituta zuten langileak ere txalo egitera hurbildu ziren.



Auzuneko etxebizitza askotan ikus zitezkeen jaien aldeko elementuak. AIURRI



Segurtasun neurriak betez, danborrada jendetsua osatu zuten auzoan. AIURRI



Maidar Zapirain, Esti Sistiaga eta Mikel Urdangarin musikariak. AIURRI



Kantujira taldekoen emanaldia, larunbat arratsaldean. AIURRI



Jon Eskudero, Xabier Arantzeta, Beñat Beloki, Xabier Ariznabarreta (gai-jartzailea), Unai Ormaetxea, Ion Beloki eta Aritz Eskudero Berrozpe elizan. AIURRI

Andoaindarrez osaturiko bertso saioa Berrozpeko elizan

Beñat eta Ion Beloki anaiak, Aritz eta Jon Eskudero anaiak, Unai Ormaetxea eta Xabier Arantzeta aritu ziren

Xabier Lasa ANDOAIN

Punttuka bertso eskolak azken urtetan egindako lan isilaren emaitza pozgarria izan zen Kaletxikiko auzotarren jaietan bistaratu ahal izan zena. Beñat Beloki eta Xabier Arantzeta-entzat lehen kantaldia izan zen jendaurrean, eta txukun jardun zuten. Seikotea plaza eta auzoetan gehiagotan kantari ikusiko dugula ez dago zalantzarik.

Saioan zehar, Beñati San Juan gisa eta Unairi San Pedro gisa kantatzeko eskatu zien Xabier Ariznabarreta gai jartzaileak. "Beñat, San Juan zara, santua, Jesusen faboritua, horrela esaten zuten behintzat. Zu, Unai, berriz, San Pedro. Biok, Jaungoikoaren ondoan topo egin duzue gaur, San Pedro eskerrak ematera, Kaletxikin jaiak ospatzen ari direlako, eta San Juan, kexatze- ra, Andoainen jaiak ez direlako ospatu".

Beñat Beloki:

Aurten festak anulatu, izan degu frakasua. Aurten Sanjuanak ospatutzeko bagenuela asmua, baina ezin izango degula ospatu dena osua. Hemen bizitzeko behar degu, inportantea da sua (bis)

Unai Ormaetxea:

Berriro ere, hara kexatzen oraintxe zera hasiya. Sua bea zertako degu, alperrik da, alegiya. Ate joka etorri naiz ni

San Juan, ta zure biya.

Jainko aurrean aizu ze txarra den inbidiya (bis)

Beñat Beloki:

Inbidia ai! ze txarra degun Ai San Pedro, zu kabroya! Zure gorputzen ikusitzen det orain begira erdoya. Kaletxikin handia degu bokata edo ta loya. Hik ez dakik San Juan dela gure Andoaingo patroya? (bis)

Unai Ormaetxea:

Etzaite inondik hortik sartu nere onduan geldik ja! Sanjuana hobia dala, zu bai zeala zerriya! Kontu bat esango dizut, hara egia da alegiya: zurekin udal horixe dago ta nerekin do herriya (bis)

Beñat Beloki:

Unai, orain zuk dirudizu Andoain hontako jabia Eta San Pedro hobia degula San Juan baino hobia. Nik ez dakit zeinek idatzi zun herri hontako legia. Biak ospatuko ditugu ta egingo degu pakia (bis)

Unai Ormaetxea:

Oso majo zu etorri zera, hala bada gaur gaurkoan, eta bakeak egingo degu geroxio guk orduan. Izan e zu hortik zabiltz, izena dezu San Juan, bihar danian inun etzaude ta bihar danian zu jua (bis)



Erkizia eta Lasa. AIURRI

"Disfrutatze aukera izan dugu"

Buruntza jatetxean bazkarian zirela, Miren Erkizia eta Amaia Lasa auzotarrak pozarren zeuden. "Segurtasun neurriak hartuta, ez genuen jende asko hurbiltzea nahi. Pilaketak saihestu behar genituen" zioen Amaiak. Eta Mirenek jarraitu, "etxeok egon gara, eta disfrutatze aukera izan dugu".



Xabier Arantzeta. AIURRI

Urtebetetze festa auzoko ospakizunetan

Danborradaren saioa amaituta ezustekoa jaso zuen Xabier Arantzeta "Toxak"ek. Urtebetetze eguna zuen eta auzotarrek omenalditxo eskaini zioten.

Andoni Urbistondo URNIETA

Udan irekitzearen arrazoiak? "Zuloa estaltzen saiatzeko, handia baita". Astean hiru egun, eta sagardoa botilan bakarrik, "txotxarekin egoera gaiztotzeko arriskua baitago". Menuan berrikuntza batzuk eskainiko dituzte, baina aldatuko ez dena, "betiko janari eta zerbitzu ona, guregana etortzen direnek estimatzen dituzten ezaugarriak". **Nondik nora etorri da bihar, ostiralez, sagardotegia berriro irekitzeko erabakia?**

Egoerak bultzatuta, ezinbestean. **Alegia, egiten ari zareten zuloa estaltzeko beharraren ondorio.** Noski. Zulo handi samarra egin dugu, eta botilei irteera eman behar zaie merkatuan nola edo hala. Espero ez genuen egoerara moldatu beste erremediorik ez dugu izan, eta irekitzeko erabakia hortik dator, moldatu beharraz. Ea zer moduz moldatzen garen.

Zein epe irekitzea espero duzue?

Printzipioz uztaila eta abuztua izango dira, eta sortzen den demandaren arabera, ba irailan ere eutsiko diogu, aste pare bat edo. San Migelak baino lehen itxiko dugu, eta sagardoa ekoizten hasi, berriro. Ireki dugu, eta ez genuen espero, eta dagoenarekin egin behar dugu aurrera. **Giroa sumatzen da, sagardotegiak bete samar sumatzen dira, tokia bilatzeko komeriak daude.**

Gurean ere hala izatea espero dugu. Guk errezibimendu ona egingo diegu bezeroei, eta eskatzeko baimenarekin, lasai etor daitezela eskatuko nieke. Gauzak txukun egin zaleak gara, jendeak ezagutzen gaitu.

Udan, sagardotegi garaitik kanpo irekitzeak halako beldurrik, zalan-tzarik sortzen al duzu?

Beno, gu txikiak ginenean, sagardotegia merenderoa zen, baina udan ez dugu inoiz ireki. Ez dakigu jendeak nola erantzungo duen, gu geu nola moldatuko garen, txotxik gabe nola erreakzionatuko duen jendeak... Zalan-tza asko, baina ez dakigulako molde berri honek zer ekar dezakeen.

Menuan aldaketaren bat egingo duzue?

Bai. Bakailao tortillaz gain urdaiazpikoarena ere eskainiko dugu. Tomatea entsaladan ere bai, letxuga entsalada, bakailaoa saltsan edo frijitua, eta kostilla ere bai. Agian uda betean txuleta astun samarra gerta lite-

"Errespetuz jokatu behar dugu, geuk eta bezeroek"

EUGENIO URRUZOLA URNIETAKO SETIEN SAGARDOTEGIKO NAGUSIA

Moko sagardotegiko bazterrak txukuntzen aritu da azken astean. Ostiralean sagardotegiko ateak irekiko ditu bezeroentzat. Uda betean, lehen aldiz historian



Urnietako Oztaran auzoan dago Setien sagardotegia (943 55 10 14). AIURRI

keelako, eta txuleta baino merkeagoa ere badelako. Aste pare bat pasatzen direnean agian arraina ekarri eta guk prestatzeko aukera emango dugu, orain arte egin dugun bezala.

Hiru egun, astean.

Bai, ostirala, larunbata eta igandea.

Zergatik hiru egun bakarrik?

Astean zehar beste lanak ere egin behar dira, sagardoa botilaratu, besteak beste. Zalan-tzan egon gara ze egunetan ireki. Nik, hasiera batean ostegunetan ere irekitzeko asmoa neukan, eta akaso igandean itxi, baina Lourdes arrebarekin hitz egin eta ostiral, larunbat eta igandean irekiko dugu.

Zer ordutegirekin?

Gauetan 20:00tik 23:30 edo gauerdia arte, eta eguerditan 13:30tik 16:30ra. Bazkariak bukatu eta gero dena desinfektatu behar da, eta horrek lan handia ematen du.

Txotxik ez.

Ez. Botila bakarrik. Arrazoi pare bategatik. Txotxa egiteko langile bat behar duzu, hori bakarrik egingo duena. Taldeak eramane, esan noiz joan, noiz

"JENDEAK TXOTXA NAHIAGO DU, BAINA PANDEMIAK BOTILA EKARRI DU"

EUGENIO URRUZOLA

daukaten jana mahaian, noiz eta non edan... Eta gero erantzukizunez jokatu behar dela. Jendea zutik jartzen bada, nahastu egiten da, bi trago hartu eta neurria galtzen hasi. Arduradun politikoak segurtasunez jokatzeke eskatzen ari badira, sagardotegietako arduradunek izan behar dugu neurria eman behar dugun lehenak, ez? Pandemia ez da bukatu, eta ezin dugu katxondeoan ibili. Norbera gutxieneko errespetuarekin ibiltzen bada, aurrera egingo dugu, baina tentuz jokatu behar dugu. Guk eta bezeroek.

Botilan bakarrik, sagardotegian. Ze hausnarketa eragiten duzu?

Sagardo onena beti botilakoa da, egina dagoen sagarra da. Txotxak beste joko bat dauka, sozializazioa, jendea aurrera eta atzera, harremanak sortzen dira... baina produktu bezala, botilako sagardoa txotxekoa baino hobea da, zalan-tzarik ez. **Eta bezeroak txotxa faltan bota dezakeela uste al duzu?**

Ez. Mentalizatuta etorriko baita. Mundu honetan hara eta hona dabilenak badaki txotxik ez dela egongo. Ez gaude ohituta, askatasun handiarekin ibili izan ohi gara sagardotegian, baina orain beste batek baime-na eman behar duzu, txotxa egiteko, eta horrek gogoa bera apalduko du.

Sagardo gutxiago kontsumituko al da?

Ez, gehiago. Kalitate hobea duelako, eta txotxean uste dena baino gutxiago edaten delako. Txotxean sagardo mutur bat hartu, kanpora atera, zigarroa erre, beste pixka bat hartu, edalontzia hustu... Botilan errazago edaten da, eta nahi duzun beste edaten duzu. Bukatzen bada, eskatu eta kito.

Botila geratzeko etorri omen da. Ados?

Ba, larri ibili. Jendeak txotxa nahiago du, baina pandemia honek botila ekarri du. Urte batzuk atzera platerak jarriko ote genituen edo ez eztabaidatzen genuen sagardo ekoizleek. Eta platerak jarri dira. Aurrena bat, gero bi, gero bezero bakoitzarentzat bana. Jatetxe arrunt bilakatzen ari gara pixkanaka. **Eta txotxa bueltatuko al da?**

Ba ez dakit, baina egungo baldintzetan zaila. Bakunaren bat bilatzen duten arte zail ikusten dut. Egoera lasaitzen ez bada, *cuidau!*

Eta txotxa desagertzen bada, zer?

Ba sagardotegiak bere xarma galduko du, ze berezitasuna ematen diona txotxa da. Bertakoak garenoi ez hainbeste, akaso, ohituta gaudelako, baina kanpotik noizean behin etortzen den bezeroa, autobusean, ba ez da etorriko txotxik ez badago, ze botila supermerkatuan eros dezake. Bertakoa ez den bezeroarekin funtzionatzen duen formula txotxa eta festa da.

Eta bietako bat desagertzen bada...

Pena emango lizuke txotxa galtzea?

Jakina. Ez dago halakorik beste inon. Ez gaude prestatuta txotxik gabe bizitzeko. Jendeak galdetzen du: "Eta nahi duan guztia esan dezaket?". Mundu osoan parekorik ez duen berezitasuna da.

Eta iraungo al lukete sagardotegiek txotxik gabe, botilarekin bakarrik?

Oso zaila. Txotxarekin urte erdia libratzen du sagardo ekoizleak. Txotxa kenduko balitz, sagardotegi asko kinka larrian geratuko lirarteke.

Esan liteke sagardotegira gero eta jende gehiago etortzen dela jana-riagatik, sagardoagatik baino?

Jende asko. Jendeak janari ere asko erreparatzen dio. Proporzio bat eman beharko banu, jana-riagatik sagardoagatik baino jende gehiago etortzen dela esango nuke. Iraganen sagardoa dastatzera etortzen zen jendea, botilak ze upeletatik nahi zituen erabakitza. Orain hori galtzen ari da, pixkanaka, eta janaria irabazten.

Ze esperantza duzu bi hilabete hauekin? Egindako zuloa itxiko al duzu?

Ez, ez, hainbeste ez. Mugatuta gaude, tokiz. 80 bat lagunentzako tokia dugu, eta normalean 120 sartzen dira. Neurri ona da, 80, dena den. 120 etortzen direnean askotan iritsi ezinik aritzen gara. 80 lagunekin, aldiz, bezero guztiak gusturago geratzen dira. Guretzat bezeroa etxera kontent joatea da garrantzitsua, hori ezin da diruarekin ordaindu.

Ilobak alboan izango al dituzu?

Ez, ez. Ez bata, eta bestea. Bat erremontean ari da, eta bestea suhiltzaile lan eta formazioan. Lurdes arreba, Cristobal sukaldaria, eta Jokin, Imanol ilobaren koadrilako lagun bat ariko gara. Xabi ilobaren hutsunea botako dut faltan, errespetua jartzen baitaki, batez ere neurririk ez duten bezeroekin.

"Harrituta gaude umeek egoerarekiko duten jarrerarekin"

Jasone eta Irati udalekuetan ari dira lanean. Ez-ohiko egoera honetan zenbait neurri hartu behar izan dituzte



Jasone Urruzola, koordinatzailea. AIURRI



Irati De Torres, begiralea. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Jasone Urruzola Urnietako udalekuetako koordinatzailea da eta Irati De Torres begiralea. Bestelako egoeran lan egitea egokitu zaie, ekainaren 29an Udalekuak abiatu zirenetik.

Nolakoa izan da udalekuen hasta-pena?

J.U.: Ez-ohiko egoera honetan gurasoen eta herritarren kezkek kudeatu behar izatea ez da oso erraza izan. Lehen egunak dira eta oraingoz ez dugu arazorik eduki, baina hortxe dago kezka. **I.T.:** Hasiera arraroa izan da umeentzat eta hezitzaileentzat. Guztia moldatu behar izan dugu segurtasun eta higie-ne neurriak bermatzeko. Beraientzat lasterketa egitea eta maskara jantzita edukitzea ez da oso eroso, egoera horretara ohitu beharra dago.

Nola ziurtatzen duzue segurtasuna eta higie-ne?

J.U.: Talde bakoitzean hezitzaile arduradun eta laguntzaile bat dago. Ezinbestekoa iruditu zitzaigun, haurren eta begiraleen segurtasunari begira tenperatura hartzeko, maskarak jarri-razteko eta egoera kontrolpean edukitzeko arduradun eta laguntzaile bana izendatzea.

I.T.: Haurrek eta hezitzaileok maskarak erabiltzen ditugu, une oro eskuak garbitzen ditugu xaboiarekin eta alkoholarekin, eta egunaren amaieran erabilitako materiala desinfektatzen dugu.

Nola ikusten dituzu begiraleak?

J.U.: Behin hasita lasaia, bai neu eta baita hezitzaileak ere. Guztiok genuen urduritasun puntu hori, ez hezitzaileengatik, baizik eta haurrek egoeraren aurrean edukiko zuten jarreraregatik. Esanak esan, harrituta gaude haurren jarrera onarekin.



AIURRI

Ortzadarraren koloreak

"Urnietako anitza, desberdintasunean berdina" goiburu hori erabilia, Urnietako Udalak bat egiten du LGTB kolektiboaren Nazioarteko Egunarekin eta aldarrikapenarekin. Ortzadarra nagusi zen Urnietako udaletxeko balkoian, ekainaren 28an. Urte luzez atxekimendu argia adierazi du Udalak, LGTBI+ kolektiboarekin.



AIURRI

Bonoen salmenta atzeratu da

Ekainaren 29rako iragarrita bazegoen ere, Urnietako Udalak ohar bidez atzeratu egingo dela jakinarazi du: "Establezimendu askok, bonuen salmenta Udalak kudeatzea eskatu zuten. Udalak salmenta bere gain hartzeko lanketa egitea onartu du. Horrek baina, kanpainaren hasiera atzeratu egingo du prestaketa lan guztia egin behar baita".



Galarreta txapelketako ligaxkako azken partidak

ERREMONTEA Ligaxkako azken partidak jokatuko dira larunbatean Galarretan. Juanenea eta Endika finalerako txartela lortzear daude. Ansa II eta Zubiri finalerdietara igarotzeko zorian daude, baina edozer pasa daiteke larunbatean

Mikel Arberas HERNANI

Galarretako 50. Urteurrena Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zen larunbat arratsaldean. Juanenea-Endika bikoteak Ansa II eta Larrañagari irabazi zieten (35-30). Urriza-Zubiri bikoteak Goikoetxeari eta Barrenetxeari gailendu ziren (30-29).

Larunbateko partidekin, Juanenea eta Endikak bikoteak 8 puntu lortu dituzte eta lehen postuetan jarri dira, finalerdietarako txartela lortuz. Datorren asteko partidaren puntu bakarra lortuz gero, finala jokatuko dute zuzenean. Ansa II eta Larrañagak puntu bakarra lortu zuten aurreko larunbateko norgehiagokan, eta oraindik ez dute finalerdietarako txartela. Hil ala bizikoa da, beraz, asteburu honetako partida.

Urriza eta Zubiri puntu bat gehiagorekin finalerdietan egongo lirateke, eta memento honetan hirugarren postuan daude Imanol Ansaren eta Larrañagaren atzetik. Bestalde, Goikoetxeak eta Barrenetxeak hurrengo partida irabazi beharko lukete txapelketan jarraitu ahal izateko.

Txapelketa zuzenean eskaintzen ari da ETB. Endika Barrenetxeak bere kaskoan daraman kamerako irudi ikusgarriak tartekatuz, gainera.



Goikoetxea urnietarra, aurreko jardunaldiko partidan. UTS

50. URTEURRENEKO TXAPELKETA

2. jardunaldia. 2020/06/27

Juanenea-Endika 35
Ansa II-Larrañaga 30
Goikoetxea V-Barrenetxea IV 29
Urriza-Zubiri 35

Sailkapena:

1. Juanenea-Endika 8
2. Ansa II-Larrañaga 5
3. Urriza-Zubiri 4
4. Goikoetxea V-Barrenetxea IV 1

3. jardunaldia.

Uztailak 4, larunbata:

Urriza-Zubiri.
Ansa II-Larrañaga.
Goikoetxea V-Barrenetxea IV.
Juanenea-Endika.

Finalaurrea:

Uztailak 11, larunbata.

Finala:

Uztailak 18, larunbata.

Partidak zuzenean ikusi nahi?

Emaila: urnieta@aiurri.eus.

Ansa urnietarra. UTS

Zuzenean ikusteko aukera

Larunbatean arratsaldeko 15:30etatik aurrera, 50. Urteurreneko ligaxkako azken partidak jokatuko dira. Ikuskizuna ziurtatuta dago, izan ere, azken postuan dagoen Goikoetxea-Barrenetxea bikoteak nahitaez irabazi behar du norgehiagoka txapelketan jarraitu ahal izateko. Gaintzeko bikoteek ere, ezinbestean lortu behar dituzte puntuak, beraz, lehia borrokaturia izango dela hautematen da aurretiaz. Esanak esan, maila bikaina erakusten ari dira lau bikoteak, eta ikusleek hala diote. Teknika bikaina, maila handiko pilotariak, abiadura eta bizitasuna; hori eta gehiago ikus daiteke Hernaniko Galarretan.

ZUZENEAN IKUSI NAHI?

Galarretara joateko aukera eskaintzen dizu Aiurrik. Emaila idatzi urnieta@aiurri.eus helbidera.



Nora Mendizabal. AIURRI

Nora Mendizabal Plazandreak pilota saioan

Andoaindarrak ETB1eko emakumezko pilotariei buruzko telebista saioan parte hartuko du

Mikel Arberas ANDOAIN

Emakume pilotariak izango dira protagonista ETB1ek uda honetan eskainiko duen "Plazandreak" saioan. Uztailaren 3an hasi eta abuztuaren 27ra bitartean, ostegunero, emakumeek hartuko dute pilotalekua. Hamabi pilotari ikusi ditugu lehian, lau taldetan banatuta, bakoitza entrenatzaile batekin.

Astero hiru partida jokatuko dituzte, pilota mistoa erabiliz eta hamabi tantotara: lehenengoa eskuz banaka, ondoren binaka, eta, bukatzeko, eskuz banakako beste neurketa bat. Ostegunero bi talde lehiatuko dira eta hiru puntu izango dira jokoa.

ZUZENEAN

50. ERREMONTE TXAPELKETA

UZTAILA 4 Larunbata 15:30

1	URRIZA ZUBIRI	VS	ANSA II LARRAÑAGA
2	GOIKOETXEA V BARRENETXEA IV	VS	JUANENEA ENDIKA
3	SEGUROLA ARRUARTE	VS	ETXARRI ZALDUA

Sarbide mugatua

NATURZALETASUNA Olazar eta Otieta guneeetatik igarotzen da GI-3091 errepidea, Leitzaranera murgiltzeko sarbidea dena auto-gidariarentzat. Uda honetan herrigunean ibilgailua utzi beharko da asteburu eta jai egunetan, naturbidean murgildu nahi bada



Mendi bizikletan, lasterka edo oinez bisitari ugari hurbiltzen da Plazaola-Leitzaran naturbidera. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo Udalak eta Leitzarango Bisitarien Etxea kudeatzen duen Bizi-Biziki enpresak elkar-lanean, Otieta eta Olazarko parkeetara doan GI-3091 errepidea asteburuetan eta jai egunetan ixtea eta garraio publikoa jartzea erabaki dute. Era horretan, hirigunetik bi parke horietara oinez, bizikletaz nahiz busez hurbildu ahal izango da. Buses iraila erdialdera arte martxan ibiliko da.

Busaren ordutegia, asteburu eta jai egunetan

- Goizez: 10:00, 11:00 eta 12:00.
- Arratsalde: 17:00, 18:00 eta 19:00.

Goikoplazatik irten eta Karrikatik barrena egingo du parkeetarako joan etorria. Konfinamendu garaia amaitu denetik, inguruetako mendi eta txokotara ohi baino bisitari gehiago hurbildu dira. Baita Leitzaran haranera ere.

Aldi berean, Bisitarien Etxea zabalik dago. Informazio panelez gain, bizikletak alokatzeko zerbitzua eskaintzen ari dira. Baita taberna zerbitzua ere. Bertatik bertara ibiltzea izango da askorentzat uda honetako plana.



Olagain auzunean, metro gutxira, ohartarazpen ezberdinak jartzen dituzte. AIURRI



Goikoplaza eta Karrika arteko ibilbidea egiten du, Olazar-Otieta iritsi aurretik. AIURRI



Juan Iguaran eta Luis Mari Bengoa, ezinbesteko bikotea herri-kirolen munduan. AIURRI

Herri kirolarien lagunarteko bazkaria, Eula sagardotegian

HERRI KIROLAK Euskal Herri osotik hurbildutako ia ehun lagun elkartu ziren Urnietako Eula sagardotegian

Joxeba Lizeaga URNIETA

Ekainaren 27an egin zen Urnietako Eula sagardotegian, Juan Iguaranek antolatutako Herri Kirolarien urteroko bazkaria. Aurreko urteetan udaberria hasieran egiten bazen, aurtengoa uda betean egin zen, Covid-19 pandemiaren ondorioz aurrez egitea ezinezkoa suertatu zelako.

Kanpoan beroa nagusi zela sartu ziren sagardotegiko freskura atseginera. Inoizko jendetsuena izan zen pasa larunbateko bazkaria, herri kirolen mundutxoan mugitzen diren ia 100 pertsona elkartu baitziren bertan. Euskal Herri osotik etorriak.

Kupeletik eta botiletik sagardoa edanez eman zuten menu tradizionalaren kontu, beti ere giro atsegin eta anaikorrean.

Bazkariaren 14. edizioa izan zen. Eta ziurrenik azkenekoa. Juan Iguaranek, adinean aurrera doala eta, bazkaria antolatu

duen azken urtea izan baita. Ikustear dago ea aurrerantzean beste norbaitek edo herri-kirolariek beraiek prest egongo diren antolakuntza beren gain hartzeko. Eulako ekitaldian Juanek aulki bat jaso zuen opari moduan, aurrerantzean, eta herri kirolen alde horrenbeste lan egin ondoren bertan eserita atsedean har dezan. Aulkiaren egilearen eskutik, Julian Larrea, 91 urteko bizkaitarra, jaso zuen oparia.

Bazkalostea, akordeoi doinuz girotua izan zen, eta egunari amaiera eman zitzaion, ohiko moduan, Oianume jatetxean kafea hartuz.

IGUARAN EK AULKI BAT JASO ZUEN OPARI MODUAN, LARREA EGILEAREN ESKUTIK JASO ZUENA

www.txapelasybordados.com
www.txapelaborduak.eus

Keinu

Kale Nagusia, 12.
ANDOAIN. 637 283 224
keinuandoain@gmail.com



Aimar Murua andoaindar kirolaria. EMF

Hurrengo denboraldia hasteko gogo biziz dago Aimar Murua

ESKIA Federazioak egin dion elkarrizketan Koronabirusak eragindako egoeraz hitz egin du

Erredakzioa ANDOAIN

Aimar Murua andoaindar gazteak 17 urte ditu, eta mendiko eskian etorkizun oparoa du aurretik. **Nola daramazu berrogeialdia?**

Etxean egotera ohitu egin beharra neukan, eta hasieran gogorra egin zitzaidan. Nire burua antolatu nuen egunero zerbaitegin ahal izateko, horrela ez nintzen asko aspertuko. Nire lagun gehienei oso gogorra egin zaie konfinamendua, baina niri ez zait batere gogorra egin.

Sasoia mantentzeko zein entrenamendu mota egiten ari zara?

Batez ere, arrabola eta indarra egiten ari naiz, nahiz eta batzuetan garajejan korrika ibili. Asteazehar, kirolak txandakatu egiten nituen, honela ez nintzen nazkatzen. Niri, onura asko ekarri dizkit konfinamenduak, eta kirolaren arloan batez ere bizikletan hobetu dut.

Zein ziren aurtengorako zure helburuak?

Aurten en nuen inongo helbururik. Aurten, lehen kontaktu moduan hartu dut urtea. Zer maila zegoen ikusi nahi nuen, eta hurrengo urterako helburuak

aukeratzeko erreferentzia gisa erabili nahi nituen.

Geldialdia gertatu arte egindako denboraldiarekin gustura amaitu al zenuen?

Bai. Oso pozik amaitu dut denboraldia, pare bat lasterketa egin ondoren. Gainera, lasterketa horiek mentalki oso ondo prestatu naute hurrengo urtean helburu pare bat betetzeko.

Udararako zein asmo duzu?

Triatloiaren denboraldiari hasiera emateko izugarritzko goiarekin nengoen, baina orain udazkena arte ez dugu txapelketarik jokatu. Aitarekin "Transpirenaica" egiteko asmoa ere baneukan, baina, hau ere bertan behera geratu zaigu. Hainbeste txapelketa bertan behera geratzeak, oraindik ere gogo gehiago ematen dit hurrengo urteko denboraldia hasteko.

"KONFINAMENDUAN, KIROL MAILAN, BIZIKLETAN HOBETU DUT BATEZ ERE"

Udaleku ireki ezberdinak datorren astean hasita

Ekainaren 8an "Konkis Andoain" udalekuak iragarri zituen Sport Madness enpresak, eta aurreko astean Udalak "Leitzaran abentura" udalekuen berri eman zuen. Gazte Lokalak eta Allurralde kiroldegiak ere ekimenak iragarri dituzte, uztailerako

Erredakzioa ANDOAIN

Koronabirusaren eraginez, era-kundeek egitasmo asko bertan behera utzi dituzte eta hainbat kasutan eskaintza eraldatu egin behar izan dute.

Ekainaren 8an, deseskaladaren 3. fasea indarrean jarri zenean, Sport Madness enpresak haur eta gaztetxoentzako "Konkis Andoain" udaleku irekiak iragarri zituen. Bi txanda osatuko dituzte, uztailaren 6an hasiko da lehena eta 20an bigarrena.

Aurreko larunbatean, Andoaingo Udalak "Leitzaran abentura" gaztetxoei begirako eskaintza iragarri zuen, Leitzaran bailaran egingo dena. Kirol jarduera ezberdinak uztartzeko aukera izango da. uztailaren zehar bi txanda ezberdin antolatu nahi dituzte.

Uda Kirola

Allurralde kiroldegitik 8-12 urte bitarteko haurrentzat aisialdia osatzeko 48 plaza eskainiko di-



Leitzaran bailaran "Leitzaran abentura" udalekuak antolatuko dituzte. AIURRI

tuzte, 4 taldetan banatuta. Plazak mugatuak direnez, zozketa ize-na eman dutenen artean egingo da; ostegun honetan emango da zozketaren berri. Uztailaren zehar bi txanda ezberdin antolatuko dituzte.

Gazte Lokala

12 urtetik gorakoentzat zabalduko dute, eta taldeak osatuz gero irteerak eta ekintza ezberdinak martxan jarriko dituzte.

Ekimen pribatu gehiago abiatuko dira, ez ohiko udan.

TRASTEROEN SALMENTA – ZUMEA PLAZA, 5

AZKEN TRASTEROAK

HAINBESTE ESPAZIO BETETZEN DUTEN TRASTEETIKIN ZER EGIN EZ DAKIZULA?
Hurbil zaitez ikustera. konpromisonik gabe.
Tratu pertsonalizatua eskainiko dizugu

IVA/BEZa ordaintzeaz salbuetsita.
Zure beharretara egokituko dizugu.
Entrepantia egiteko aukera

KALITATE BIKAINEN MATERIALA
Aire irteera, baldosa,
Argi kontagailu propioa.

NEURRIAK
4 m²-tik 8,30 m²-ra x 3 metroko altuera.

FINANTZIAZIOZ AUKERA

BEREHALAKO ENTREGA >> INFORMAZIOA 604 388 941

KOMUNITATEA

MINTZALAGUNAK ANDOAIN

Eskerrik asko

2020ak berezitasunak izan dituela ezin da ukatu. Covid 19ak erronka berria jarri zigun mahai gainean, eta ez da erraza izan guztia aurrera ateratzea. Ahal dugun baliabideekin ahalik eta ondoen egiten saiatu gara, eta mintzalagunen erantzuna ere ezin hobea izan da.

Martxo aren 14an mundua geratu egin zen, inprobisazioaren kaosean genbiltzan, eta noski, edozein elkartek bi aldiz pentsatu beharra zuen nola antolatu bere jarduna. Mintzalagunei ere nabarmen eragin zieten, aurrez aurre ezin elkarturik geratu ziren, baina alternatiba eta aukera berria aprobetxatuz, aurre egin diogu egoerari: Batzuek online elkartzen jarraitu dute, beste batzuek aurrez aurrekoak momentu batez utzi dituzte, baina egoera

pixka bat normaldu denean, berriz ekin diote.

Aitor Mendiluzeren bertsoak mintzalagunei:

Mintzalagunak badu mintzotik eta badu lagunetik, badu eskaintza eta esketik badu sormen jardunetik, badu entzute erantzutetik badu maite dugunetik, eta hain garai nahasietan erresistentzi gunetik txalo bat zuei, hor zaudetenoi, lehenbiziko egunetik.

Aurrez aurreko ezintasuna gainditu duzue on line terrazak martxan jarri orduko han biltzen zarete orain telefonoa edo mezuak erabiliaz horrez gain hitz bakoitza pauso berri bat hurrena luzatzeko zain eskerrik asko euskaldunago egitearren Andoain.



Mr. Link filma euskaraz eskainiko dute, datorren uztailaren 9an. AIURRI

Zinema kalean, datozen bi ostegunetan Ondarretan

250 lagunek "Zinema kalean" egitasmoaz goatzeko aukera izango dute, prebentzio neurriak hartuta

Erredakzioa ANDOAIN

Hauexek dira Gazteria Siletetik ezarritako irizpide batzuk: Ikusleei tenperatura hartuko zaie, musukoa beharrezkoa izango da, aulkiak metro eta erdiko distantziarekin jarriko dira eta senideak elkarrekin egon daitezke.

Uztailak 2, osteguna:

Spider-man: Un nuevo universo. Ondarreta. 22:00. Erdaraz.

Uztailak 9, osteguna:

Mr.Link. Ondarreta. 22:00. Euskaraz.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Oier eta Enaitz Agirre

Urteak bete dituzte: Batak 8, maiatzaren 11n, eta besteak 11 uztailaren 2an. Ze gizontxo pare! Muxu magikoak biontzat. Etxekoak.

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Aiurri bidez.

Erraza da, eta dohainik!:

- Webgunea: www.aiurri.eus.
- Emaila: diseinua@aiurri.eus.
- Whasappa: 619 163 537.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 4 eta igandea 5

DIAZ: Kale Nagusia, 19. 943 592 057. Andoain.

URNIETA

Larunbata 4 eta igandea 5

AGUADO: Nagusia, 21. 943 550 327. Astigarraga.

Uda Gipuzkoan goatzeko pasaporte

Jaso zurea Turismo Bulegoetan

www.gipuzkoaturismoa.eus

#VisitGipuzkoa



Jabier Oiartzabalek lantoki eta bizioki du Aizmendi-Etxeberri baserria, Leizotz aldean. AIURRI

Merkatu plazan, 50 urtez jarraian

JABIER OIARTZABAL LEIZOTZ BAILARAKO AIZMENDI-ETXEBERRIKO BASERRITARRA Andoaingo merkatu plazan saltzaile finkoa, inguruotan geratzen den bakanetakoa da. Laster 50 urte beteko ditu saltzaile lanetan

Xabier Lasa ANDOAIN

Jabier Oiartzabal Aizmendi Etxeberriko (Leizotz bailara) baserritarra da, Andoaingo merkatuan saltzaile finkoa, geratzen diren bakanetakoa. Ia mende erdia baserriko produktuen saltzaile izaki, erretiroa ez du hain urrun ikusten.

Etorkizun beltza ikusten dio bertako nekazal ekoizpenen salmentari.

Ezagun zara Andoaingo merkatuan. 50 urte beteko ditut laster saltzaile bezala, bertan. Jubilazioa hartzea polita behar du izan, baina osasunak erantzuten duen bitartean, zergatik ez segi? Izan ere, astean bitan bertaraten naiz Andoaingo merkatura, eta beti izan dut gogoko plazako saltsa hori. Osasun krisialdia bizitu dugun boladan, nabarmen bota dut faltan plazan sortzen den jenarteko giro hori.

Oiartzunen jaioa zara.

Han jaio nintzen bai, eta baserri giroan hezi! Familia han maizterra izanik, Arizmendi Etxeberri baserriaren aukera sortu zitzairen gurasoei, eta Andoainera etortzea erabaki zuten. Zortzi urtez geroztik naiz andoaindarra. Ikasketak Ondarretan eta La Sallen egin nituen, 14 urte bete arte, baina aurreko urteetan etxean jada hasi nintzen lardaskan baserriko produktuak plazaratzen, eta agudo hartu nuen ardura hori. Hasierako urte haietan, Usurbilko lorazain bati laguntzen ere aritu nintzen, baina geroztik etxeko familia-negoziari heldu nion. 2000ra arte esnea ere banatzen aritu nintzen Andoaingo hainbat etxeetan. Garaitsu hartan gurasoak hil zitzaizkidan, eta bakarrik aritu naiz azken urtetan. Nahikoa izaten dut An-

doaingo azokako astearte eta larunbatetako txandekin.

Zein produktu saltzen duzu?

Garaian garaikoak, ahalik eta barazki mota gehiago salgai jartzen saiatzen naiz. Adinean gora noanez, gero eta gutxiago egiten dut lanketa baserriko baratzean, eta inguruko baserrietatik ekartzen dut. Kanpotik zerbait ekartzea tokatzen zaidanean, eroslearek garbi azaltzen diot zein den bere jatorria.

Merkatura azaltzen den Andoaingo baserritar bakarra zara egun.

Halaxe da. Oraingo Juanita Alkain plaza ondo horretan

"GAUR EGUN SOBERA DAGO TOKIA MERKATU PLAZAN, NAHI DUENARENTZAT. SALTZAILEAK FALTA!"

zegoen etxearen arkupean hasi nintzenean, Andoaingo hamarretik gora baserritar biltzen ginen bertan. Orain gogoan dudala: bat Sorabillatik, lau Bordaberrietik, bi Goiburutik, bat edo bi Buruntzatik, bizpahiru Leizotzetik... Udalak, hortik Makaldegira aldatu zuen lekuz azoka, behin behineko kokalekua izango zela agindu eta gero (nahiz eta gaur arte iraun). Baserritar horietako gehienek Makaldegian segi zuten, baina uzten joan ziren poliki-poliki... Era horretan, bakarra naiz gaur egun.

Nekazal produktuekin bakar batzuk geratzen zarete, eta aterpean biltzen zarete.

Bakanak gara! Ibarako lorezalea, Legazpiko gozozalea, Segurako arraultza zalea eta lauok. Orain asko ez dela, Anoetako Teresa Jauregi eta Villabonako Maria Asun Amilibia jubilatzeke zorian zirela-eta, esan nien, "neu ere zuen atzetik joango naiz noizbait, eta hemen segidarik ez daukagu!"

Zer moduz 2016an eraiki zuten aterpearekin?

Ondo eta gaizki! Egia da irabazi egin dugula, kontuan hartuz gero artean teilape zahar batean biltzen ginela eta hantxe egon beharra zegoela goiz guztian, izan eguraldi ona izan zakarra. Haiztetatik-eta babesten gaitu, baina mantenimendua falta zaio, txukun edukitzea, armiarma sareek-eta ez diete mesede egiten ez higieneari ezta itxurari, elikagaiekin ari baikara. Eurria goian-behean izaten denean ere, ur zorrotak erortzen dira!

Jubilatzen zarenean atzetik inor ez datorkizula esan duzu...

Gainbehera doa Andoaingo azoka. Ikusi besterik ez dago nola doan eboluzionatzen, saltoki postuak gutxitzen-gutxitzen. Joan ziren garaia, arropa saltzaileek-eta goizean goiz etorri behar izaten zutena, tokia harrapatzeko! Gaur egun sobera dago tokia nahi duenarentzat. Saltzaileak falta!

Beti-betiko saltzaileak zahartzen eta jubiltzen ari garen

"BEZERO GAZTEAK BADATOZKIGU, BAINA EZ BESTEEK UTZITAKO HUTSUNEA BETETZEKO TAMAINAN"

heinean, inor ez datorkigu tokia hartzera, ez etxeko familiarrik ezta konpotik ere. Eta ez bakarrik Andoain, baita ingurukoetan... Ordiziako feriak berak fama badauka, bai, eta bertako ekoizleen toki berezitat jotzen da, baina han ere betiko baserritarrak zahartzen doaz eta lekukoari heltzeko gazte gutxi sumatzen da.

Zergatik iruditzen zaizu dela nekazal produktuen saltzaileen urritze hori?

Egia da Urnieta, Hernani eta Astigarraga aldean oraindik bakan batzuk eusten diotela. Baina Andoain panorama esku bakarreko hatzez kontat liteke. Garagorrikoak esnearekin eta Ubalatagi, Muñagorri eta Intsusaraingoak barazkiekin ari dira, nitaz gain. Guztietatik Intsusaraingoak ikusten dira sasoiko; gainerakoak jubilatzeke atarian gabiltza, lekukoa hartzeko erreleburik gabe segurasko...

Lotua da nekazaritza, eta gazte batek nekez ikusiko du hortik bizimodua ateratzea; errazago ikusiko du lan egun eta ordutegi jakin bateko lanpostu bati eustea. Bestetik, dauzkagun lur sailak mugatuak dira, handizkako ekoizpena eta salmenta egin ahal izateko. Eta horri gehitzen badiogu urbanizazio prozesua dauzkagun lur sail aberatsenak jaten ari dela pixkanaka-pixkanaka..., dena esana dago! Azkenekoa, Buruntza auzoan gertatzen ari dena, zer da eta saltoki handi horietako bat jartzeko bertan!

Osasun krisialdiak eraginda, bertako saltzaile eta produktuen aldeko aldarria inoiz baino gehiago entzun da...

Halaxe da. Herritik ezin irten-eta, bezeroak ugaritu zaizkigu; aukera eduki dute bertako produktuen kalitateaz probatzeko. Sekula ez bezalako iladak izan ditugu, baina berriro ere normalizatzen hasi da kontua. Izan ere, belaunaldi berriek nahiago dute hipermerkatura joan eta erosketa handia bertan egitea. Azken batean, krisi aurreko kontsumo-ohituretara itzultzen ari gara, eta beti-betiko bezeroa zahartzen ari zaigu, batzuk hiltzen, besteak etxera erretiratzeko...

Bezera gazteagoak badatozkigu tarteka, bai, baina ez bestek utzitako hutsunea betetzeko tamainan.